




EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO AUKERA BERDINTASUNERAKO I. PLANA 2015-2018

2015eko martxoak 16



Asistencia Técnica



Con el apoyo financiero de



AURKIBIDEA:

- 1.- Zigoitiko berdintasun plana. Definizioa.
- 2.- Helburuak.
- 3.- Aurrekariak. Aldez aurretik egindako diagnostikoaren jarraibide estrategikoak.
- 4.- Eskerrak.
- 5.- Marko arautzailea.
- 6.- Baldintzak / Printzipioak.
- 7.- Metodologia:
 - Lanketa-prozesuaren ezaugarriak eta aldagaiak.
 - Helburuak lehenesteko irizpideak.
 - Lan taldea.
- 8.- Esparruak, helburuak eta ekintzak.
 - 1. esparrua: Berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzeko neurriak.
 - 2. esparrua: Berdintasunean eskuhartzeak egiteko ardatzak.
- 9.- Kronograma
- 10.- Jarraipena eta ebaluazioa.
- 11.- Lankidetzeta eta parte hartze sozialaren egitura.
- 12.- Finantzazioa.



1. Zigoitiko berdintasun plana. definizioa

Plan honek interbentzio "integral, koordinatu eta zeharkako" bat izateko asmoa du, eta sexuen arteko berdintasunaren aldeko borrokan parte hartze eraginkor bat gauzatzeko bidea ere bai.

Plana **eraikuntza-prozesu** bat sinbolizatzen duen dokumentu bat da. Ez da itxia, eta hemendik aurrera egingo diren ebaluazio eta zuzenketekin aberasten joango da.

Plana **ibilbide-orri zorrotz bat** da, baina baita **malgua** ere, errealitatearen aldakortasunera egokitu dadin, eta, hala ere, berdintasun printzipioa betetzeko bermean aurrerapausoak eman ditzan.

Planak udalerrriaren errealitatera egokitua eta neurrira ekarria izan behar du, bai bere barne-antolamenduan, bai eskaintzen dituen zerbitzuetan. Planaren atal garrantzitsu baten ardura izango dira inplikaturako talde eta pertsonak jar ditzaketen balizko oztopoak gainditzeko informazio eta formazioa gehitzeko estrategiak. Beraz, Planaren dimentsionamenduak bateragarria izan beharko du **anbizio-dosi** egoki batekin.

Komenigarriena litzateke plana agintaldiarekin batera egotea **indarrean** (4 urtez). Dena dela, udal hauteskundeak gertu daudela ikusirik, planaren izaera malguari esker, beharrezko ikusten bada, modu arin batean ebaluatu eta moldatu ahal izango da.



2. Helburu orokorrak

2.1.- Emakumeei bizitza sozial, politiko edo ekonomikoan parte hartzea eragotzi ahal dien **edozein oztopo sexista desagerraraztea.**

2.2.- Berdintasun printzipioa betetzen dela bermatzea, bere ekimen-eremuan, bai barne-mailan, bai herritarrei eskainitako zerbitzuetan.

2.3.- Herritarrak, udal langileak eta ordezkari politikoak sentsibilizatzea, gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunen gainean.

2.4.- Herritarrei, udal langileei eta ordezkari politikoei gaiari buruzko formazioa ematea.



3. Aurrekariak.

Orain dela zenbait urtetatik hona, Udalak bere konpromisoa erakutsi du emakumeenganako indarkeriaren aurka. Martxoaren 8ko ospakizunei ere bere atxikimendua adierazi izan die. Urte hauetan, hainbat harreman izan ditu Berdinbidean egitasmoarekin, berdintasunaren aldeko ekintzak bultzatzeko. 2011n, Zigoitiko Udalak "Arabako gizon-emakumeen berdintasunerako Kontseilua bultzatzeko estrategiak, eraginkortasun eta ahalduntze-tresna gisa" ekitaldia sustatu zuen.

2012ko azaroaren 29ko Osoko Bilkuraren saioan genero indarkeriaren kontrako konpromisoa adierazi zuen, eta 2013ko martxoaren 13ko bilkurako akordioan hainbat konpromiso hartu ziren. Hona hemen hartutako konpromisoen adierazpenen zatiak

2012ko azaroaren 29ko osoko bilkurako akordioaren zatia:

"... Hori guztia kontuan hartuta, Udal honek:

KONPROMISOA HARTZEN DU Beldur Barik programaren edukiekin, gazteengan indarkeria matxistari buruzko sentsibilizazio eta prebentzio lana egiteko lan-tresna gisa.

KONPROMISOA HARTZEN DU indarkeriaren aurkako borrokarako politika integral bat ezartzeko, era guztietako neurriak hartuz, beste batzuen artean, hezkuntzan oinarritutako prebentzio-neurriak, erasoen ondorengo laguntza-neurriak, eta beste hainbat neurri, erantzun sozial bat artikulatzera bideratuak, Zigoitiko udalerriko Berdintasun Planean jasoko direnak.

KONPROMISOA HARTZEN DU, bere eskumenen barruan eta indarrean dagoen legeria aplikatuz, udal-politika aktibo, integral eta koordinatu bat garatzeko, emakumeenganako indarkeriaren aurka, hitzetatik ekintzetara pasatuz. Horretarako, aurrekontuetan mantenduko dugu aurrekontu-partida bat, Zigoitia udalerriko Berdintasun Planean jasotako ekintzak gauzatzeko.

KONPROMISOA HARTZEN DU autodefentsa feministaren beharra transmititzeko, eta bere lanketan bereziki emakumeek parte har dezaten animatzeko, horretarako baliabide egokiak jarrita..."

2013ko martxoaren 13ko Osoko Bilkurako Aktaren zatia:

"...Horregatik guztiagatik, Udalbatza honek konpromisoa hartzen du:

- Berdinsareak proposatutako helburu eta konpromisoak bere egiteko.*
- Berdintasun Plan bat onartzeko.*
- Hizkuntzaren erabilera ez sexista bat egiteko bandoetan, osoko bilkuretan, karteletan, etab. Adibidez, udal eraikinetatik "Atención al ciudadano" kartela kendu, eta "Atención a la ciudadanía" kartela jarriko dugu.*
- Jarrerren gaineko kontzientziaziorako programa bat abiatzeko, udalerriko umeen eta gaztetxoaren arteko berdintasunarekin lotuta. Horretarako, beste instituzio eta erakunde batzuek eskaintzen dituzten baliabideak erabili daitezke. Adibide gisa:*



Berdinsareak Beldur Barik kanpainen landu zituen unitate didaktikoak, edo Arabako Foru Aldundiak eskaintzen dituen berdintasun programak, Arabako hainbat udalerritako eskoletan erabiltzen direnak. Puntu honek erantzun bat eman nahi dio hainbat batzorde eta osoko bilkuratan azaldu dugun kezka, gure gazteak estereotipoak desagerrarazteko lanetan eta jarrera sexistetan jasaten ari diren atzerakadarekin lotuta.

2013an diagnostiko bat egin zen, Arabako Foru Aldundiak diruz lagunduta, Udalerriko emakume eta gizonen berdintasunaren gaur egungo egoeraren argazki bat ateratzeko helburuarekin. Udalerrian berdintasunaren egoerari buruz eskuragarri zeuden datu objektiboak, zeharkako iturrien interpretazioa, eta inguruko elkarte eta erakunde garrantzitsuenen iritzia azterketa izan zituen oinarri. Dokumentu honetatik ateratako jarraibide estrategikoak I. Berdintasun Planaren oinarria dira.

Diagnostikoan atzemandako hainbat erronkari erantzuteko, 2013aren amaieran eta 2014aren hasieran **Zigoitian Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna Bultzatzeko Programa** garatu da, Arabako Foru Aldundiaren laguntza ekonomikoarekin.

Diagnostikoaren lanketatik ateratako **Jarraibide Estrategikoak**, Berdintasun Planaren helburuak eta ekintzak lehenesteko oinarri gisa erabili direnak, honakoak dira:

Helburua: Gobernantza eta berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzeko neurriak.

- Berdintasun Planerako diagnostiko bat landu eta jarraibide estrategikoak ezarri. Berdintasun Planaren lanketa prozesua osatu.
- Udalerrian berdintasuna sustatzeko egitura (funtzionala, Kontseilua) ezarri. Gaur egungo egiturekin lankidetzan jardun.
- Genero ikuspegia txertatu:
 - Sentsibilizazio-formazio politikoan eta gaikuntza teknikoan,
 - Programen planifikazioan eta udal zerbitzuetan,
 - Ohiko administrazio-prozeduren gidan,
 - Sexuen arabera banakatutako datuak jasotzerakoan, eta adierazle eta azterketak egiterakoan,
 - Idatzizko komunikazioan (hizkuntzaren erabilera inklusiboa), erabilitako baliabideetan, webgunea barruan sartuz,
 - Administrazio batzarretan eta auzokideen batzarretan berdintasunezko parte hartzea sustatuz,
 - Kontratazio publikoan (berdintasunari dagozkion klausulak).



Helburua: Eskuhartzearen ardatzak:

❑ Ahalduntzea eta baloreak

- ❑ Berdintasunaren baloreak zabaldu, eta gizarte-rolak egokitu, sexuaren arabera, testuinguru ezberdinetan (haurtzaroa, gaztaroa, familiak, kirola)
- ❑ Parte hartzearen kontzientzia handiagoa sustatu, administrazio batzarren eremuan erabakiak hartzerako orduan.
- ❑ Emakumeen sustapen ekonomikoa sustatu eta enpresa-jarduerak sortzen lagundu.
- ❑ Emakumeen elkartegintza mugimendua lagundu.

❑ Gizarte-antolakuntza erantzukidea

- ❑ Udalerriko emakumeen egoera ezagutzeko azterketa bat egin.
- ❑ Erantzukidetasuna eta zaintzaren etika sustatu.
- ❑ Udalean bertan eta inguruko enpresa egituretan kontziliazio arduratsua sustatu.

❑ Emakumeen aurkako indarkeria.

- ❑ Indarkeria kasuetan jarraitu beharreko arreta-protokoloaren sistematizazioa: sentsibilizazioa, aurretiatzko detekzioa, arreta eta joeren eboluzioa.
- ❑ Biktima diren emakumeei arreta eta babes integrala bermatzea.
- ❑ Indarkeriarik gabeko jarrera-ereduak garatzen laguntzea, desberdintasunak konpontzerakoan, haurtzaroan eta gaztaroan.
- ❑ Jazarpen sexista eta sexualaren prebentzio-protokoloak ezartzen lagundu.



4. Eskerrak

Aukera-berdintasunaren gaia aztertzen duten tokian tokiko planak egiteko, beharrezkoa da ordezkari politikoen, teknikarien eta udalerrian bizi diren herritarren parte hartzea. Are gehiago, gure kasua bezalakoetan: udalerrri txikia da, 5.000 biztanle baino gutxiago ditu, eta zaila da datu objektibo, bereizle eta gaur egungoak aurkitzea. Bizi diren errealitate sozialari buruz duten iritzia eta pertzepzioan, hainbat eta hainbat hausnarketa dituzte gauzak egiteko moduari buruz, eta berdintasun printzipioa, bere zentzu osoan, bermatzeko ezarri beharko litzatekeen antolamendu egokiari buruz.

Pertsonak dira aldaketa sozialaren motore nagusia. Mila esker zuen denbora, dedikazioa eta ideiak gurekin partekatzeagatik. Jasotakoa ekintza bihurtzen saiatuko gara, emakume eta gizonen arteko berdintasun errealia lortze bidean.

Mila esker Emakunderi ere, lan eta dokumentu hau egiteko prozesua diruz laguntzeagatik. Nahitaezkoa izan da laguntza hori, eta baita, hainbat unetan, eskaini digun orientabidea ere.



5. Erreferentziako marko arautzailea

Berdintasun Plan hau gauzatzeko, erreferentziako marko nagusi gisa ondorengoak hartu ditugu:

- **4/2005 Legea, otsailaren 18koa**, emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoa.
- **3/2007 Lege ORGANIKOA, martxoaren 22koa**, emakume eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrari buruzkoa.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako **VI. Plana**. X. legegintzaldirako jarraibideak.
- Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako **III. Foru Plana**. AFA
- Tokiko bizimoduan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako **Europar Karta**.

Beraz, 4/2005 Legean, otsailaren 18koan, **emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoan**, Plan honek oinarri gisa hartzen dituen **kontzeptuak** honakoak dira:

Tratu berdintasuna.

Debekatuta dago pertsonen sexuan oinarritako edozein diskriminazio, izan zuzena, izan zeharkakoa, horretarako erabilitako bidea edozein izanik ere.

Aukera berdintasuna

Euskal botere publikoek neurri egokiak hartu beharko dituzte, emakumeek eta gizonen berdintasun-egoeran gauzatu ditzaten beren eskubideak, hala nola eskubide politiko, zibil, ekonomiko, sozial eta kulturalak, eta baita araututa egon daitezkeen gainontzeko edozein oinarritzko eskubide ere, horren barruan daudelarik botererako eta baliabide eta onura ekonomiko eta sozialerako kontrola eta sarbidea. Lege honen arabera, aukera berdintasuna ez dagokio bakarrik botererako eta baliabide eta onuretarako sarbide edo hastapenari bakarrik; baita aurreko horiek gauzatzeko eta kontrolatzeko baldintzei ere.

Errespetua aniztasunari eta ezberdintasunari

Botere publikoak beharrezkoak diren baliabideak jarri behar ditu sexuen arteko berdintasunerako bidea gizonen eta emakumeen arteko aniztasuna eta ezberdintasuna errespetatuz egiteko. Aniztasuna biologian, bizi-baldintzetan, helburuetan, beharretan; eta baita emakume eta gizonen kolektiboen barruan dauden aniztasuna eta ezberdintasunak ere.

Genero ikuspegiaren integrazioa

Genero ikuspegiaren integrazioa honetan datza: emakume eta gizonen egoera, baldintza, helburu eta beharren kontsiderazio sistematikoa, bertan txertatuz desberdintasunak desagerrarazteko helburu eta ekintza espezifikoak,



eta politika eta ekintzen maila guztietan eta planifikazio, exekuzio eta ebaluazio fase guztietan berdintasuna sustatuz.

Ekintza positiboa

Emakume eta gizonen arteko berdintasun errealaren lortzea sustatzeko, botere publikoek neurri espezifiko eta tenporalak hartu behar dituzte, bizitzaren hainbat esparrutan, sexu-arrazoiak direla eta, dauden desberdintasunak desagerrarazteko edo gutxitzeko helburuarekin.

Sexua dela eta sortutako rola eta estereotipoak deuseztatzea

Euskal botere publikoek sexuen arabeko rol sozialak eta estereotipoak desagertzeko lan egin behar dute. Horietan oinarritzen da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunik eza, eta horien arabera esleitzen zaie emakumeei eremu domestikoaren ardura, eta gizonari eremu publikoarena, balorazio eta errekonozimendu ekonomiko eta sozialean alde handia dagoelarik.

Ordezkaritza orekatua

Euskal botere publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte erabakigune ezberdinetan emakume eta gizonen presentzia orekatua izan dadin.

Lankidetzaren eta koordinazioa

Euskal botere publikoek, emakume eta gizonen berdintasunari dagokionean, lankidetzaren jardun eta koordinatzeko betebeharra dute, beren eskuhartzeak eraginkorrak izan daitezen, eta baliabideen erabilera arazoizkoagoa izan dadin.

Ahalduntzea

Emakumeen bide eraginkor eta sendoa bat da, emakumeak maila pertsonalean eta genero gisa inorentzen dituzten gatibutasuna deuseztatze bidea zabaltzen duena. Ahalduntzea eraldatze prozesu bat da, eta horren bidez, emakume bakoitzak, apurka-apurka eta, batzuetan, abiadura handiagoz, historiaren, politikaren eta kulturaren objektu izateari uzten dio. Besteen objektu izateari, hau da, "besteentzako" izateari uzten dio, eta bizitzaren beraren subjektu bihurtzen da, historiaren, kulturaren, politikaren eta bizitza sozialaren protagonista.



6. Baldintzak / Printzipioak.

Zigoitiko Udalari garrantzitsua iruditzen zaio **udalerrriaren berdintasun politika** zehaztea, bere errealitatearen neurrira ekarria, eta bere ezaugarrien arabera egina. Aldez aurretik **ibilbide** bat egina badago, eta ibilbide hori bultzatu eta marko baten bidez finkatu nahi da. **Lan tresna** bat, parte hartzailea, adostua eta operatiboa, sortu nahi da, udalerrriaren dinamikan integratuko dena.

Udalak bere egiten ditu ondorengo argudioak:

- Berdintasunik eza **ez da justua**.
- Administrazio Publikoaren erantzukizuna da, bere eremuetan (udal-eremua, foru-eremua, autonomikoa), **herritar guztien beharrei, itxaropenei eta interesei erantzuna ematea**. **Generoaren ikuspuntua** nahitaezkoa da, bai ordezkari politikoen bai teknikarien aldetik, tokian tokiko bizimoduan.
- Generoaren ikuspuntuak hobetu egiten du Tokiko Gobernuen **politika publikoen eraginkortasuna eta inpaktua**.
- Betebehar bat da, hala adierazten baitu **Legeak**.

Udalak **aldeko baldintza** garrantzitsuak ditu:

- Badago **borondatea eta sentsibilitatea**, berdintasunaren kudeaketa erakundetzeko, Udal Korporazioan. Alkatetzak, Gobernu Taldeak eta Udal Korporazioak inplikazio zuzena dute.
- Alkatetzaren dekretuz, **diagnostiko** bat egitea onartu zen.
- **Osoko Bilkuran onartu** da Berdintasun Plan bat egitea.
- Udalerrian **elkarte asko eta garrantzitsuak** daude, eta sarean lan egiteko ohitura badago.
- **Aurretiaz, berdintasunaren aldeko hainbat ekintza** egin dira, orain dela urte batzuk hasita.
- **Gobernu taldearen eta Berdinbidean zerbitzuaren artean** harremana egon da.
- **Udal aurrekontuetan** emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko ekintzak finantzatzea **aurreikusten** da.

Komenigarriena litzateke plana agintaldiarekin batera egotea **indarrean** (4 urtez). Dena dela, udal hauteskundeak gertu daudela ikusirik, planaren izaera malguari esker, beharrezko ikusten bada, modu arin batean ebaluatu eta moldatu ahal izango da.



7. Metodologia

Lanketa prozesua.

Zigoitiko Udalak (Araba) parte hartze prozesu bat hasi du, gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren gaineko eta genero-indarkeriaren aurkako lehenengo plana egiteko.

Plana **dokumentu operatibo** bat da, eta **ekintzak** jasotzen ditu. Ekintza horiek aurretiaz egindako diagnostikoan ezarritako orientabide estrategikoen arabera zehaztu dira. **Helburuak** eta lortzea espero den **emaitzak** lehenetsi dira, planean sartzeko, alde batetik, modu puntualean egiten ziren ekintzak, eta, bestetik, egindako ibilbide hori gainditzeak dakarren marko orokorra.

Planaren oinarri den aurretiazko diagnostikoan **talde politikoak, teknikariek eta herritarrek** (herriko elkarten bidez) hartu dute parte. Udalerriko herritarren parte hartzea ezinbestekoa da **udalerrri txikietan**, berdintasun politketan, denboran zehar, lortutako hobekuntzen **iraunkortasuna** bermatzeko (izan ere, zailtasunak egon daitezke denboran zehar norabidea, kontsentsua eta baliabideak (ez bakarrik ekonomikoak) mantentzeko). Horrekin lotuta, interesgarria eta beharrezkoa da **sarean lan egitea**, udaleko arloen artean (eta baita udaletik kanpora ere) baliabideak partekatzeko, eta generoaren ikuspuntua hedatzen joateko, berdintasunaren aldeko **gobernantzan**. Horretarako, politikarien, teknikarien eta herritarren konpromisoa behar du.

Metodologia: Helburuak lehenesteko irizpideak.

Plan honetako helburuei ekiterako orduan, helburu horiek lehenesteko **irizpide** nagusiak honakoak izan dira:

- Esku hartzearen behar soziala.
- Arloen moldakortasuna.
- Esku hartzeko aukerak.
- Baliabide mugatuekiko egokitasuna/sinergia.
- 2013an egindako diagnostikoan ezarritako orientabideak.

Era berean, ondorengo aldagaiak hartu dira kontuan:

- Udalerrriaren gaitasuna, genero ikuspegia barneratzeko.
- Aurretiazko diagnostikoan ateratako informazioarekin duen lotura.
- Eraginkortasuna mantentzea.
- Inpaktua eta iraunkortasuna sustatzea.

Metodologia: Lan taldea.

Plana taldean egindako lanari esker garatu da. Lan egitura hori, intentsitate-maila ezberdinak izan dituen, ondorengoek osatu dute:



- Sailen arteko talde politikoa (Alkatetza, Gizarte Ongizaterako saila, Hezkuntza, Kultura eta Mendi saila). Gobernu taldea.
- Talde teknikoa (Udaleko langileak, Udalarari zerbitzua ematen dioten Kuadrillako langileak, HALZ eta KGZko langileak)
- Udalerriko elkarte nagusienekin egindako hainbat bilera eta elkarrizketa.
- Kanpo-aholkularitza baten laguntza teknikoa.
- Kontraste irekia, udal korporazioarekin eta herritarrekin.



8. Esparruak, helburuak eta ekintzak

Plan honetan zehazten diren helburu eta ekintzak bi esparrutan bana daitezke:

1. esparrua- berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzeko neurriak

EAEko gizonen eta emakumeen berdintasunerako VI. Planak (Emakunde, 2014) **13 neurri** dakartza. Neurri horiek jasotzen eta hedatzen dituzte emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen aginduak, euskal erakunde publikoen antolakuntza eta funtzionamenduan berdintasun printzipioa integratzeko ezartzen direnak.

2. Esparrua – Berdintasunean esku-hartzeko ardatzak.

EAEko gizonen eta emakumeen berdintasunerako VI. Planak (Emakunde, 2014) herritarrei zuzenduta berdintasunaren gainean egiten diren ekintzak esparru honetan sartzea proposatzen du.

1. esparrua- berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzeko neurriak

Ekintzak ondorengo 13 neurrien barruan sartzen dira:

- G1. Berdintasunerako plangintza areagotzea eta hobetzea.
- G2. Berdintasunerako unitate administratiboak sortzea eta indartzea.
- G3. Berdintasunerako koordinazio-egiturak sortzea eta indartzea.
- G4. Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea.
- G5. Prestakuntza jardueretan genero-ikuspegia sartzea.
- G6. Enplegu publikora sartzeko eta bertan sustatzeko hautaketa prozesuetan berdintasunari buruzko edukiak sartzea.
- G7. Hizkuntza eta/edo beste komunikazio-elementu batzuk modu ez-sexistan erabiltzea.
- G8. Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea.
- G9. Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea.
- G10. Sektorekako eta zeharkako planetan genero-ikuspegia sartzea.
- G11. Kontratu, diru laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea.
- G12. Epaimahaietan emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua sustatzea.
- G13. Kontsultarako eta parte-hartzeko organoetan genero-ikuspegia sartzea.

Zigoitiko Udalaren berdintasun planaren barruan **ondorengo neurri eta helburuak lehenetsi dira:**



G1. Berdintasunerako plangintza areagotzea eta hobetzea.

- Berdintasunaren egoerari buruzko hausnarketak bideratzea, sentsibilizazio-lanak egiteko.
- Urteroko planetako ekintzen bidez, berdintasun politikaren planifikazioa mantendu eta eguneratzea.
- Sareko lana sustatzea.

G7. Hizkuntza eta/edo beste elementu komunikatibo batzuk modu ez sexistan erabiltzea.

- Komunikazioaren elementuak erabiltzea aldaketa sozialean eragiteko, errealitate berriak sortzen lagunduz.

G11. Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea.

- Udalak sustatutako jarduera ekonomikoak, nagusiki diru-laguntzekin eta kontratazioekin lotuta, erabiltzea, berdintasuna sustatuko duen ikuspuntu bat garatzeko.



G 1. Berdintasunerako planifikazioa hobetzeko esparrua

EKINTZAK	ARDURADUNA	URTEA					ADIERAZLEAK	OHARRAK
		14	15	16	17	18		
1. Berdintasun Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko koordinazio-egutegi bat egin (G1.1).	Batzorde informatiboa		X				Koordinazio egutegia.	
2. Berdintasun planaren urte horretarako planifikazioa ebaluatu (G1.2).	Batzorde informatiboa		X	X	X	X	Ebaluazioaren erregistro dokumentua.	
3. Urteroko berdintasun-planak ebaluatu, eta Kontzejuetan zein ekintza egin daitekeen aztertu (G1.3).	Batzorde informatiboa		X	X	X	X	Urteroko kudeaketa plana.	
4. Berdinbidean Araba zerbitzuaren jardueretan parte hartu. (G1.4).	Gobernu taldea		X	X	X	X	Jardueretako parte hartzearen erregistroa.	
5. Sexuaren arabera bereizitako datuen erregistroaren garrantzia azpimarratu, Udalak eta zentroak antolatutako ekintzetan (G1.5).	Gobernu taldea		X	X	X	X	Ausazko lagin baten berrikuspena.	



G 1. Berdintasunerako planifikazioa hobetzeko esparrua

EKINTZAK	ARDURADUNA	URTEA					ADIERAZLEAK	OHARRAK
		14	15	16	17	18		
6. Berdintasunari buruzko iradokizunen buzoi bat kudeatu (G1.6).	Batzorde informatiboa		X	X	X	X	Berdintasunaren kudeaketarako baliozkoak diren iradokizun kopurua.	
7. Emakunderen urteroko foroan parte hartu. G1.7).	Batzorde informatiboa		X	X	X	X	Jardueraren dokumentu-erregistroa.	
8. Kultura, aisialdi eta kirol jardueretan generoaren ikuspegia sartzeko proposamen bat egin. Adibideak (G1.8).	Batzorde informatiboa		X	X	X	X	Urteroko proposamenen erregistroa.	
9. Berdintasunaren eremuko lelo bat aukeratzeko lehiaketa egin (liburutegiaren bidez), Udalaren komunikazio guztietan egon dadin (G1.9).	Batzorde informatiboa			X			Lehiaketa erregistratzeko dokumentuak.	
10. Erakundeei eta herritarrei udalerriko Berdintasun Planaren berri eman. (G1.10).	Batzorde informatiboa		X	X	X	X	<ul style="list-style-type: none"> • Hamazapi. • Kuadrillako aldizkaria. • Web. 	
11. Martxan dauden foroak aprobetxatu (Tokiko Agenda 21, ESEPN jarraipenerako taldea, Kultura Kontseilua), eremu honen barruan egin daitezkeen ekintzak egiteko baliabide pertsonal eta ekonomikoak finkatzeko (G1.11).	Batzorde informatiboa		X	X	X	X	Aliantza eta baliabideen erregistroa.	
12. Urteroko antzerki eskaintzan berdintasunari buruzko lan bat txertatu (G1.12).	Batzorde informatiboa			X	X	X	<ul style="list-style-type: none"> • Jardueren programazioa. 	



G 7. Komunikazioaren eta hizkuntza ez sexistaren esparrua.

EKINTZAK	ARDURADUNA	URTEA					ADIERAZLEAK	OHARRAK
		14	15	16	17	18		
1. Komunikazioa modu inklusiboan erabiltzea, idatziz eta ahoz. (G7.1).	Batzorde informatiboa		X	X	X	X	Sortutako dokumentazioaren laginketa batean, hizkuntzaren erabileran egondako intzidentzia kopurua.	
2. Webgunean hizkuntza eta irudiak modu inklusiboan erabiltzea (G7.2).	Batzorde informatiboa		X	X	X	X	Webgunearen aldizkako azterketan, gaiari dagozkion intzidentzia kopurua.	
3. Hizkuntzaren erabilera ez sexista sartzea ohiko administrazio-prozeduren gidan (G7.3).	<ul style="list-style-type: none"> • Idazkari-kontuhartzailea • Gobernu taldea 		X				Prozedura eguneratuta.	
16. Webguneko berdintasunaren atala elikatzea, maiztasun finkoz. (G7.4).	Batzorde informatiboa		X	X	X	X	<ul style="list-style-type: none"> • WEB. 	



4. Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzeko esparrua.

EKINTZAK	ARDURADUNA	URTEA					ADIERAZLEAK	OHARRAK
		14	15	16	17	18		
17. Ordezkaritza politikoko eta teknikariek generoari buruzko klausula sozialak formazio bat jasotzeko. (G11.1).	<ul style="list-style-type: none"> Gobernu taldea Udaleko talde teknikoa. 			X			<ul style="list-style-type: none"> Ordu kopurua. Parte hartzaile kopurua, sexuaren arabera. Jasotako gogobetetze eta erabilera maila. 	
18. Udalak ematen dituen diru-laguntzen oinarrien azterketa bat egin. (G11.2).	Udaleko talde teknikoa.			X			Azterketaren dokumentua.	
19. Berdintasunaren irizpidea txertatu, kultur eta kirol jardueretarako diru-laguntzetan. (G11.3)	Batzorde informatiboa		X	X	X	X	Deialdiaren oinarriak	



2. Esparrua: berdintasunean eskuhartzeko ardatzak.

EAEko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako VI. Planak (Emakunde, 2014) 3 ardatz proposatzen ditu aldaketa sozialaren erronkei ekiteko, eta berdintasunean esku hartze publikoak egiteko orientabideak emateko:

- I. ARDATZAK** Balio aldaketa eta emakumeen ahalduntze pertsonal, kolektibo eta soziala bultzatzen ditu, 4 programaren bidez:
 - 1. Programa. Balio aldaketa.
 - 2. Programa. Ahalduntze pertsonala laguntzea.
 - 3. Programa. Ahalduntze kolektiboa laguntzea.
 - 4. Programa. Ahalduntze sozial eta kolektiboa laguntzea.
- II. ARDATZAK** antolaketa sozial erantzukidea bultzatu nahi du, 2 programaren bidez:
 - 5. Programa: Erantzukidetasuna eta denbora erabiltzeko modu berriak.
 - 6. Programa: Adiskidetze arduratsua.
- III. ARDATZEAN**, emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea, 2 programaren bidez:
 - 7. Programa: sentsibilizazioa eta prebentzioa.
 - 8. Programa: Indarkeria antzematea, eta arreta.

Zigoitiko Udaleko berdintasun planak ondorengo **ardatzak, programak eta helburuak lehenetsi ditu:**

- I ARDATZA: 1. Programa. Balio aldaketa.

Helburua: balioen gaineko hausnarketa sustatzea, emakumeen eta gizonen aukera berdintasunari dagokionean.

4. programa. Ahalduntze sozial eta politikoa laguntzea.

Helburua: Udalak emakumeak herritar gisa garatzeko egiten duen apustua ikusgarri egitea.

- II. ARDATZA: 6. Programa. ARDURADUNA kontziliazioa.

Helburua: erantzukidetasuna sustatzea, ARDURADUNA kontziliazioaren oinarri gisa, zaintzaren etikarekin lotuta, udalerrian.

- III. ARDATZA: 7. Programa. Sentsibilizazioa eta prebentzioa.

Helburua: Udalaren apustua ikusgarri egitea, gatatzak indarkeriarik gabe konpontzeari dagokionean, herritar gazteengan eta nerabeengan arreta berezia jarrita.



I ARDATZA: 1. Programa: Balioen aldaketarako eta emakumeen ahalduntzerako esparrua

EKINTZAK	ARDURADUNA	URTEA					ADIERAZLEAK	OHARRAK
		14	15	16	17	18		
20. Baterako hezkuntzarekin lotutako formazio-ekintzak egin GKZn, ludotekan parte hartzen duten familiekin. (PR.1.1).	Batzorde informatiboa		X	X	X	X	<ul style="list-style-type: none"> Ikastaro kopurua. Ordu kopurua. Parte hartzaile kopurua, sexuaren arabera. Gogobetetze maila. 	
21. Berdintasunarekin eta rol-banaketarekin lotutako baloreak zabaltu, Hamazazpin eta webgunean (PR.1.2).	Batzorde informatiboa		X	X	X	X	Aipamenak Hamazazpi aldizkariaren aleetan.	
22. Berdintasunaren aldeko jarduerak egin, ospakizun egunetan. (Adb. Martxoak 8) (PR.1.3).	Batzorde informatiboa		X	X	X	X	<ul style="list-style-type: none"> Jarduera azaltzen duen dokumentua. Eraginaren balorazio laburra. 	
23. . Guraso eta umeekin aisialdiko jarduerak egin, zaintza-rolekin lotuta (monografikoak: etxerako lanak partekatu, jaioberrien masajea, sukaldaritz-ekonomatoarekin lotura) (PR.1 .4).	Batzorde informatiboa			X			<ul style="list-style-type: none"> Jardueren programazioa. 	
24. Berdintasunari buruzko pankarta-lehiaketa bat egin (PR.1 .5).	Batzorde informatiboa		X		X		<ul style="list-style-type: none"> Jardueren programazioa. 	
25. Eguzki Jaiaren kartel bat egin berdintasunarekin lotutako gai bati buruz (PR.1 .6).	Batzorde informatiboa			X		X	<ul style="list-style-type: none"> Kartela. 	



I. ARDATZA: 4. Programa: ahalduentze sozial eta politikoa laguntzeko esparrua

EKINTZAK	ARDURADUNA	URTEA					ADIERAZLEAK	OHARRAK
		14	15	16	17	18		
26. EALZrekin elkarlanean berdintasunaren gaineko jarduera bat egin (PR.4.1).	Batzorde informatiboa		X				<ul style="list-style-type: none"> • Topaketaren programazioa (antzerki taldearen laguntza). • Eraginaren araberako ebaluazioa. 	
27. Ahalduentzea sustatzeko tailerren egindako manifestua zabaldu (PR.4. 2).	Batzorde informatiboa		X				<ul style="list-style-type: none"> • Argitaratu izanaren erregistroa. 	
28. Sentsibilizazio-dokumentua zabaldu ("Berdintasunaz hizketan" tailerren egindakoa) (PR.4 .3).	Batzorde informatiboa		X				<ul style="list-style-type: none"> • Argitaratu izanaren erregistroa. 	
29. Landa eremuko emakumeen eguna antolatu (urria) (PR. 4 .4).	Batzorde informatiboa		X	X	X	X	<ul style="list-style-type: none"> • Jardueraren erregistroa. 	



II. ARDATZA: 6. Programa: ARDURADUNA kontziliazioari laguntza emateko esparrua

EKINTZAK	ARDURADUNA	URTEA					ADIERAZLEAK	OHARRAK
		14	15	16	17	18		
<p>30. Hausnarketa-guneak sortu, udalerriko ospakizunekin lotuta, erantzukidetasunari buruz (PR. 6 .2).</p> <p>Adibideak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Inauteriak ▪ Ikasturte bukaera ▪ Gabonak (frontoian) ▪ Eguzki Jaia <p>• GKZko erabilera anitzeko gelako hausnarketa txokoa.</p>	Batzorde informatiboa		X	X	X	X	<ul style="list-style-type: none"> • Programazi oaren proposamena • Inprimatutako materiala. • Iritzi eta hausnarketen dokumentua. 	



III. ARDATZA: 7. Programa: emakumeen aurkako indarkeria deusezten laguntzeko esparrua

EKINTZAK	ARDURADUNA	URTEA					ADIERAZLEAK	OHARRAK
		14	15	16	17	18		
31. Udalerrian emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako eta desagerpenerako protokoloa gure egitea. (PR.7.1)	Batzorde informatiboa		X	X	X	X	<ul style="list-style-type: none"> • Protokoloa gure egitea • . 	
32. Ikastaro bat egitea, haurtzaro eta gaztaroko indarkeriarik gabeko jarrerari buruz, Beldur Barik-en deialdia baino lehen, proiektua gazteen artean zabaltzeko. (PR.7.2).	Batzorde informatiboa			X			<ul style="list-style-type: none"> • Ordu kopurua • Parte hartzaile kopurua, sexuaren arabera. • Gogobetetze maila. 	



9. Kronograma

EKINTZAK		15	16	17	18
1	Berdintasun Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko koordinazio-egutegi bat egin.	x			
2	Berdintasun planaren urte horretarako planifikazioa ebaluatu	x	x	x	x
3	Urteroko berdintasun-planak ebaluatu, eta Kontzejuetan zein ekintza egin daitekeen aztertu	x	x	x	x
4	Berdinbidean Araba zerbitzuaren jardueretan parte hartu.	x	x	x	x
5	Sexuaren arabera bereizitako datuen erregistroaren garrantzia azpimarratu, Udalak eta zentroak antolatutako ekintzetan	x	x	x	x
6	Berdintasunari buruzko iradokizunen buzoi bat kudeatu	x	x	x	x
7	Emakunderen urteroko foroan parte hartu.	x	x	x	x
8	Kultura, aisialdi eta kirol jardueretan generoaren ikuspegia sartzeko proposamen bat egin.	x	x	x	x
9	Berdintasunaren eremuko lelo bat aukeratzeko lehiaketa egin (liburutegiaren bidez), Udalaren komunikazio guztietan egon dadin.		x		
10	Erakundeei eta herritarrei udalerriko Berdintasun Planaren berri eman.	x	x	x	x
11	Martxan dauden foroak aprobetxatu (Tokiko Agenda 21, ESEPn jarraipenerako taldea, Kultura Kontseilua), eremu honen barruan egin daitezkeen ekintzak egiteko baliabide pertsonal eta ekonomikoak finkatzeko.	x	x	x	x
12	Urteroko antzerki eskaintzan berdintasunari buruzko lan bat txertatu		x	x	x
13	Komunikazioa modu inklusiboan erabiltzea, idatziz eta ahoz.	x	x	x	x
14	Webgunean hizkuntza eta irudiak modu inklusiboan erabiltzea	x	x	x	x
15	Hizkuntzaren erabilera ez sexista sartzea ohiko administrazio-prozeduren gidan	x			
16	Webguneko berdintasunaren atala elikatzea, maiztasun finkoz	x	x	x	x
17	Ordezkarri politikoek eta teknikariek generoari buruzko klausula sozialen formazio bat jaso.		x		
18	Udalak ematen dituen diru-laguntzen oinarrien azterketa bat egin.		x		
19	Berdintasunaren irizpidea txertatu, kultur eta kirol jardueretarako diru-laguntzetan.	x	x	x	x
20	Baterako hezkuntzarekin lotutako formazio-ekintzak egin GKZn, ludotekan parte hartzen duten familiekin.	x	x	x	x
21	Berdintasunarekin eta rol-banaketarekin lotutako baloreak zabaldu, Hamazazpin eta webgunean	x	x	x	x
22	Berdintasunaren aldeko jarduerak egin, ospakizun egunetan. (Adb. Martxoak 8)	x	x	x	x
23	Guraso eta umeekin aisialdiko jarduerak egin, zaintza-rolekin lotuta (monografikoak: etxerako lanak partekatu, jaioberrien masajea, sukaldaritza-ekonomatoarekin lotura)		x		
24	Berdintasunari buruzko pankarta-lehiaketa bat egin	x		x	
25	Eguzki Jaiaren kartel bat egin berdintasunarekin lotutako gai bati buruz		x		x
26	EALZrekin elkarlanean berdintasunaren gaineko jardura bat egin	x			
27	Ahalduntzea sustatzeko tailerlean egindako manifestua zabaldu	x			



EKINTZAK		15	16	17	18
28	Sentsibilizazio-dokumentua zabaldu ("Berdintasunaz hizketan" tailerrean egindakoa)	x			
29	Landa eremuko emakumeen eguna antolatu (urria)	x	x	x	x
30	Hausnarketa-guneak sortu, udalerriko ospakizunekin lotuta, erantzukidetasunari buruz (PR. 6 .2). Adibideak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Inauteriak ▪ Ikasturte bukaera ▪ Gabonak (frontoian) ▪ Eguzki Jaia ▪ GKZko erabilera anitzeko gelako hausnarketa txokoa. 	x	x	x	x
31	Udalerrian emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako eta desagerpenerako protokoloa gure egitea.	x	x	x	x
32	Ikastaro bat egitea, haurtzaro eta gaztaroko indarkeriarik gabeko jarrerei buruz, Beldur Barik-en deialdia baino lehen, proiektua gazteen artean zabaltzeko.		x		



KRONOGRAMA 2015

EKINTZAK		15
1	Berdintasun Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko koordinazio-egutegi bat egin.	X
2	Berdintasun planaren urte horretarako planifikazioa ebaluatu	X
3	Urteroko berdintasun-planak ebaluatu, eta Kontzejuetan zein ekintza egin daitekeen aztertu	X
4	Berdinbidean Araba zerbitzuaren jardueretan parte hartu.	X
5	Sexuaren arabera bereizitako datuen erregistroaren garrantzia azpimarratu, Udalak eta zentroak antolatutako ekintzetan	X
6	Berdintasunari buruzko iradokizunen buzoi bat kudeatu	X
7	Emakunderen urteroko foroan parte hartu.	X
8	Kultura, aisialdi eta kirol jardueretan generoaren ikuspegia sartzeko proposamen bat egin.	X
10	Erakundeei eta herritarrei udalerriko Berdintasun Planaren berri eman.	X
11	Martxan dauden foroak aprobetxatu (Tokiko Agenda 21, ESEPn jarraipenerako taldea, Kultura Kontseilua), eremu honen barruan egin daitezkeen ekintzak egiteko baliabide pertsonal eta ekonomikoak finkatzeko.	X
13	Komunikazioa modu inklusiboan erabiltzea, idatziz eta ahoz.	X
14	Webgunean hizkuntza eta irudiak modu inklusiboan erabiltzea	X
15	Hizkuntzaren erabilera ez sexista sartzea ohiko administrazio-prozeduren gidan	X
16	Webguneko berdintasunaren atala elikatzea, maiztasun finkoz	X
19	Berdintasunaren irizpidea txertatu, kultur eta kirol jardueretarako diru-laguntzetan.	X
20	Baterako hezkuntzarekin lotutako formazio-ekintzak egin GKZn, ludotekan parte hartzen duten familiekin.	X
21	Berdintasunarekin eta rol-banaketarekin lotutako baloreak zabaltu, Hamazazpin eta webgunean	X
22	Berdintasunaren aldeko jarduerak egin, ospakizun egunetan. (Adb. Martxoak 8)	X
24	Berdintasunari buruzko pankarta-lehiaketa bat egin	X
26	EALZrekin elkarlanean berdintasunaren gaineko jarduera bat egin	X
27	Ahalduntzea sustatzeko tailerrean egindako manifestua zabaltu	X
28	Sentsibilizazio-dokumentua zabaltu ("Berdintasunaz hizketan" tailerrean egindakoa)	X
29	Landa eremuko emakumeen eguna antolatu (urria)	
30	Hausnarketa-guneak sortu, udalerriko ospakizunekin lotuta, erantzukidetasunari buruz (PR. 6 .2). Adibideak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Inauteriak ▪ Ikasturte bukaera ▪ Gabonak (frontoian) ▪ Eguzki Jaia ▪ GKZko erabilera anitzeko gelako hausnarketa txokoa. 	X
31	Udalerrian emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako eta desagerpenerako protokoloa gure egitea.	X



KRONOGRAMA 2016

EKINTZAK		16
2	Berdintasun planaren urte horretarako planifikazioa ebaluatu	X
3	Urteroko berdintasun-planak ebaluatu, eta Kontzejuetan zein ekintza egin daitekeen aztertu	X
4	Berdinbidean Araba zerbitzuaren jardueretan parte hartu.	X
5	Sexuaren arabera bereizitako datuen erregistroaren garrantzia azpimarratu, Udalak eta zentroak antolatutako ekintzetan	X
6	Berdintasunari buruzko iradokizunen buzoi bat kudeatu	X
7	Emakunderen urteroko foroan parte hartu.	X
8	Kultura, aisialdi eta kirol jardueretan generoaren ikuspegia sartzeko proposamen bat egin.	X
9	Berdintasunaren eremuko lelo bat aukeratzeko lehiaketa egin (liburutegiaren bidez), Udalaren komunikazio guztietan egon dadin.	X
10	Erakundeei eta herritarrei udalerriko Berdintasun Planaren berri eman.	X
11	Martxan dauden foroak aprobetxatu (Tokiko Agenda 21, ESEPn jarraipenerako taldea, Kultura Kontseilua), eremu honen barruan egin daitezkeen ekintzak egiteko baliabide pertsonal eta ekonomikoak finkatzeko.	X
12	Urteroko antzerki eskaintzan berdintasunari buruzko lan bat txertatu	X
13	Komunikazioa modu inklusiboan erabiltzea, idatziz eta ahoz.	X
14	Webgunean hizkuntza eta irudiak modu inklusiboan erabiltzea	X
16	Webguneko berdintasunaren atala elikatzea, maiztasun finkoz	X
17	Ordezkarri politikoek eta teknikariek generoari buruzko klausula sozialen formazio bat jaso.	X
18	Udalak ematen dituen diru-laguntzen oinarrien azterketa bat egin.	X
19	Berdintasunaren irizpidea txertatu, kultur eta kirol jardueretarako diru-laguntzetan.	X
20	Baterako hezkuntzarekin lotutako formazio-ekintzak egin GKZn, ludotekan parte hartzen duten familiekin.	X
21	Berdintasunarekin eta rol-banaketarekin lotutako baloreak zabaltu, Hamazazpin eta webgunean	X
22	Berdintasunaren aldeko jarduerak egin, ospakizun egunetan. (Adb. Martxoak 8)	X
23	Guraso eta umeekin aisialdiko jarduerak egin, zaintza-rolekin lotuta (monografikoak: etxerako lanak partekatu, jaioberrien masajea, sukaldaritza-ekonomatoarekin lotura)	X
25	Eguzki Jaiaren kartel bat egin berdintasunarekin lotutako gai bati buruz	X
29	Landa eremuko emakumeen eguna antolatu (urria)	
30	Hausnarketa-guneak sortu, udalerriko ospakizunekin lotuta, erantzukidetasunari buruz (PR. 6 .2). Adibideak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Inauteriak ▪ Ikasturte bukaera ▪ Gabonak (frontoian) ▪ Eguzki Jaia ▪ GKZko erabilera anitzeko gelako hausnarketa txokoa. 	X
31	Udalerrian emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako eta desagerpenerako protokoloa gure egitea.	X
32	Ikastaro bat egitea, haurtzaro eta gaztaroko indarkeriarik gabeko jarrerari buruz, Beldur Barik-en deialdia baino lehen, proiektua gazteen artean zabaltzeko.	X



KRONOGRAMA 2017

EKINTZAK		17
2	Berdintasun planaren urte horretarako planifikazioa ebaluatu	X
3	Urteroko berdintasun-planak ebaluatu, eta Kontzejuetan zein ekintza egin daitekeen aztertu	X
4	Berdinbidean Araba zerbitzuaren jardueretan parte hartu.	X
5	Sexuaren arabera bereizitako datuen erregistroaren garrantzia azpimarratu, Udalak eta zentroak antolatutako ekintzetan	X
6	Berdintasunari buruzko iradokizunen buzoi bat kudeatu	X
7	Emakunderen urteroko foroan parte hartu.	X
8	Kultura, aisialdi eta kirol jardueretan generoaren ikuspegia sartzeko proposamen bat egin.	X
10	Erakundeei eta herritarrei udalerriko Berdintasun Planaren berri eman.	X
11	Martxan dauden foroak aprobetxatu (Tokiko Agenda 21, ESEpN jarraipenerako taldea, Kultura Kontseilua), eremu honen barruan egin daitezkeen ekintzak egiteko baliabide pertsonal eta ekonomikoak finkatzeko.	X
12	Urteroko antzerki eskaintzan berdintasunari buruzko lan bat txertatu	X
13	Komunikazioa modu inklusiboan erabiltzea, idatziz eta ahoz.	X
14	Webgunean hizkuntza eta irudiak modu inklusiboan erabiltzea	X
16	Webguneko berdintasunaren atala elikatzea, maiztasun finkoz	X
19	Berdintasunaren irizpidea txertatu, kultur eta kirol jardueretarako diru-laguntzetan.	X
20	Baterako hezkuntzarekin lotutako formazio-ekintzak egin GKZn, ludotekan parte hartzen duten familiekin.	X
21	Berdintasunarekin eta rol-banaketarekin lotutako baloreak zabaltu, Hamazazpin eta webgunean	X
22	Berdintasunaren aldeko jarduerak egin, ospakizun egunetan. (Adb. Martxoak 8)	X
24	Berdintasunari buruzko pankarta-lehiaketa bat egin	x
29	Landa eremuko emakumeen eguna antolatu (urria)	
30	Hausnarketa-guneak sortu, udalerriko ospakizunekin lotuta, erantzukidetasunari buruz (PR. 6 .2). Adibideak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Inauteriak ▪ Ikasturte bukaera ▪ Gabonak (frontoian) ▪ Eguzki Jaia ▪ GKZko erabilera anitzeko gelako hausnarketa txokoa. 	X
31	Udalerrian emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako eta desagertzearen protokoloa gure egitea.	X



CRONOGRAMA 2018

EKINTZAK		18
2	Berdintasun planaren urte horretarako planifikazioa ebaluatu	X
3	Urteroko berdintasun-planak ebaluatu, eta Kontzejuetan zein ekintza egin daitekeen aztertu	X
4	Berdinbidean Araba zerbitzuaren jardueretan parte hartu.	X
5	Sexuaren arabera bereizitako datuen erregistroaren garrantzia azpimarratu, Udalak eta zentroak antolatutako ekintzetan	X
6	Berdintasunari buruzko iradokizunen buzoi bat kudeatu	X
7	Emakunderen urteroko foroan parte hartu.	X
8	Kultura, aisialdi eta kirol jardueretan generoaren ikuspegia sartzeko proposamen bat egin.	X
10	Erakundeei eta herritarrei udalerriko Berdintasun Planaren berri eman.	X
11	Martxan dauden foroak aprobetxatu (Tokiko Agenda 21, ESEPN jarraipenerako taldea, Kultura Kontseilua), eremu honen barruan egin daitezkeen ekintzak egiteko baliabide pertsonal eta ekonomikoak finkatzeko.	X
12	Urteroko antzerki eskaintzan berdintasunari buruzko lan bat txertatu	X
13	Komunikazioa modu inklusiboan erabiltzea, idatziz eta ahoz.	X
14	Webgunean hizkuntza eta irudiak modu inklusiboan erabiltzea	X
16	Webguneko berdintasunaren atala elikatzea, maiztasun finkoz	X
19	Berdintasunaren irizpidea txertatu, kultur eta kirol jardueretarako diru-laguntzetan.	X
20	Baterako hezkuntzarekin lotutako formazio-ekintzak egin GKZn, ludotekan parte hartzen duten familiekin.	X
21	Berdintasunarekin eta rol-banaketarekin lotutako baloreak zabaltu, Hamazazpin eta webgunean	X
22	Berdintasunaren aldeko jarduerak egin, ospakizun egunetan. (Adb. Martxoak 8)	X
25	Eguzki Jaiaren kartel bat egin berdintasunarekin lotutako gai bati buruz	X
29	Landa eremuko emakumeen eguna antolatu (urria)	
30	Hausnarketa-guneak sortu, udalerriko ospakizunekin lotuta, erantzukidetasunari buruz (PR. 6 .2). Adibideak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Inauteriak ▪ Ikasturte bukaera ▪ Gabonak (frontoian) ▪ Eguzki Jaia ▪ GKZko erabilera anitzeko gelako hausnarketa txokoa. 	X
31	Udalerrian emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako eta desagertzearen protokoloa gure egitea.	X



10. Jarraipena eta ebaluazioa

Kudeaketa taldea da planaren giltzarria. Bultzatzaile nagusia da, eta planaren jarraipena eta ebaluazioa egiten ditu, eta beharrezko denean, neurri zuzentzaileak ezartzen ditu. Helburuei norabide berriak eman eta ekintzak birbideratu ditzake, ezarritako adierazleen azterketaren ondorioz.

Horregatik, beharrezkoa da lan horren ardura izango duen talde bat definitzea, kontuan izan behar diren arren udal txiki batentzat Berdintasun Plana kudeatzeko egiturak sortzeak ekar ditzakeen zailtasunak, ez baita posible helburu horretarako bereziki langile bat edo gehiago ezartzea.

Kasu honetan, Kontuei buruzko, Osoko bilkurako Gaiak Prestatzeko eta Gobernu-kudeaketaren informaziorako Batzordea aukeratu da, Berdintasun Planaren kudeaketaz, ebaluazioaz eta neurri zuzentzaileak hartzeaz arduratuko den organo gisa. Maiztasun finkoz biltzen den talde bat da (herritarrek aukeratutako ordezkari politikoek hartzen dute parte bertan), normaltasunez, eta bere funtzionamendua ona da, jarritako helburuek eta lortutako emaitzek erakusten dutenez. Gainera, esperientzia du talde-lanean eta koordinazioan.

Plan honi bultzada emateko egituraren gainean, Zigoitiko Udalak dituen tamaina eta baliabide pertsonalak kontuan hartuta, komenigarri ikusten da Alkatetza edo alkatetzak helburu horretarako izendatzen duen pertsona izatea berdintasunaren esparruarekin lotutako gai guztien bultzatzailea. Bultzatzaile-lanak egingo dituen pertsona hori emakumea izango da.

Sei hilean behingo maiztasunarekin, planaren jarraipena egingo da, beharrezko balitz, ebaluaziorako aukera eman eta ekintza zuzentzaileak erabakiz, planaren betetze mailaren arabera.



11. Lankidetza-egitura eta parte-hartze soziala

Berdintasun planaren fase guztietako lankidetza eta parte hartze soziala aurrez aipatutako batzordearen bidez bideratuko da: Kontuei buruzko, Osoko bilkurako Gaiak Prestatzeko eta Gobernu-kudeaketaren Informaziorako Batzordearen bidez. Batzorde honen saioak irekiak dira, eta, Berdintasun Planarekin lotutako gaiak aztertzen badira, interesekotzat jotzen diren pertsona edo kolektiboei berriazko deialdia luzatuko zaie.



12. Finantzazioa

2012ko azaroaren 29an egindako saioan Zigoitiko Udaleko Osoko Bilkurak hartu zuen akordioan jasota dagoenaren arabera, Udal honek konpromisoa hartu zuen urteroko udal aurrekontuan aurrekontu partida bat mantentzeko, Berdintasun Plan honetan aurreikusten diren ekintzak gauzatzeko nahikoa dirurekin.

2015etik 2018ra arte indarrean egongo den plan bat egin da, beraz, urtero planari dagokion aurrekontu-aplikazioa hornitzea beharrezkoa izango da, plan hau indarrean egongo den ekitaldi bakoitzerako aurreikusitako ekintzak gauzatzeko nahikoa dirurekin. Horretarako, beharrezkoa da ekitaldi bakoitzean egin beharreko ekintzen kostuaren aurreikuspena egitea.

2015 urterako aurreikusitako ekintzen kronograma gauzatzeko, 2015eko udal aurrekontuan aurreikusitako diru-kopurua 5.000 €koa da (231.227.001 aurrekontu-aplikazioa, "berdintasun ekintzak").